

Olentzero maitea:

Nire izena Gorka da eta hamabost urteko mutiko bat baino ez naiz. Nire familia oso umil izan da beti, baina azken urte hauetan diru arazo gehiago izan ditugu. Orain dela lau hilabetatik gaur arte, nire izekoaren etxean bizi gara, gure etxetik kaleratu gintuzten eta. Orain arte, nire gurasoak oso triste zeuden, baina gabonak hurbiltzen ari direnez, bat-batean oso pozik daude. Gure etxean egon ez arren, familia osoarekin gaude, eta horrek gure bizitza asko hobetu du.

Egoera honek telebistan entzun nuen esaldi batean pentsatzen eraman nau: "Ez da aberatsagoa gehiago duena, gutxiago behar duena baizik". Askok pentsatu dut eta hori egia da. Gutxiago dudana momentua, nire bizitzaren momento politena izan da ere. Horregatik, ez dizut materiazko gauzaren bat eskatuko, horrek poza emango ez didalako, nire bizitzako gauza onak ikusteko eta baloratzeko asmoa baizik.

Hau da nik eskatu nahi dizudana. Baina momento honetan ez naiz dirurik gabe dagoen pertsona bakarra. Laguntza behar duen jende asko dago mundu osoan. Mesedez, pertsona hauentzat baikortasuna pixka bat eman, mundua hobea izan dadin.

Musu handi bat eta eskerrik asko irakurtzeagatik,

Gorka